


FICHAS DE INVESTIGACIÓN / IKERKUNTZA-FITXAK

IRUDIA, LOGOTIPOA, MARKA, SINBOLOA...	
GCH-REN ALDAGAIA	GARAPEN KOGNITIBOA ESTIMULATZEA
IZENBURUA	<u>Cómo las familias ayudan o impiden la emergencia temprana de las funciones ejecutivas</u> (Nola familiek lagundu edo oztopa dezaketen funtzio exekutiboen sorrera goiztiarra)
EGILEAK	Hughes, C. & Ensor R.
ARGITALPENA	In C. Lewis & J. I. M. Carpendale (Eds.), Social interaction and the development of executive function. <i>New Directions in Child and Adolescent Development</i>, 123, 35–50.
URTEA	2009
LABURPENA	Kapitulu honetan luzaroko ikerketa bateko aurkikuntzak deskribatzen dira. Lagina, maila sozial desberdinetako 125 haur britainiarrek osatu zuten, 2 eta 4 urte zituztenean ebaluatuak izan zirenak. Emaitez adierazi zuten ama-aldamiaearen garrantzia (amak haurrari, helburu zehatzarekin ataza konkretua egiten ari denean, ematen dion laguntza bezala ulertuta: errepikapenak, zuzenketak, laguntza txikiak, etab.) haur txikiek funtzio exekutiboak eskuratu ditzaten (lan-memoriarako, inhibitu edota erregulatzeko, ekintza batetik bestera aldatzeko, planifikatzeko, arreta mantentzeko eta abarreko gaitasun bezala ulertuta). Emaitez beste hau ere adierazi zuten, imitazioaren bitartezko ikaskuntzaren garrantzia eta familia-errutina desantolatuek funtzio exekutiboen garapenean izan dezaketen efektu negatiboa.
AURKIKUNTZEN INPLIKAZIO PRAKTIKOAK	Aurkikuntzek aditzera ematen dute hasten dauden haurren funtzio exekutiboak indartu daitezkeela modu desberdinetara: helburu batera zuzenduriko ekintzen laguntzan eta orientazioan zaintzaileen ahalegin kontzienteen bitartez (aldamiajea), baita helduek zerbait lortzeko erabiliko estrategien imitazio-ereduen bitartez ere, edota haurrei euren ekintzen ondorioak aurreikustea ahalbidetzen dien gurasotasunaren jarduera argi eta kontzientearen bitartez. Hobe da lehenbailehen esku-hartzea famili egoera desantolatua edo kaotikoa ematen denean, helburudun haurren pentsamendu eta ekintzen garapena zapuzten dutelako. Era berean, haurren garapena modu egokian bultzatzeko, garrantzizkoa da gurasoak trebatzea aldamiaje aproposa egiteko eduki eta moduetan.